

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Ikuskaritza txostena,
2006ko abenduaren 31ra arteko Urteko kontuak
eta 2006ko Kudeaketa txostena.

*Espainieraz idatzitako Urteko Kontuen Ikuskaritza-Txostenaren jatorrizko bertsioaren itzulpen librea.
Desadostasunik balego, espainierazko bertsioa nagusitzen da.*

URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

Ikuskatu ditugu Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeko urteko kontuak. Erakunde horretako gobernu-batzordearen ardura da kontu horiek osatzea, eta, bertan, 2006ko abenduaren 31ra arteko egoera-balantzea, galera-irabazien kontua eta egun horretara arteko urtealdiko txostena daude bildurik. Gure ardura urteko kontu horiei buruzko iritzia azaltzea da, kontuak orokorrean harturik, eta, horretarako, ikuskaritza-lanean oro har onarturiko arauak erabili ditugu, hau da, aukerako proba batzuk eginez, urteko kontuak frogatzen dituen nabaritasuna aztertzea, eta beste alde batetik, kontu horien aurkezpena, erabilitako ikuskaritza-printzipioak eta eginiko estimazioak balioestea izan da gure beharra.

Merkataritza-legediarekin bat etorritik, 2006ko ekitaldiko Egoera Balantzearen, Galeren eta Irabazien Kontuaren eta Finantzazio Taularen ondoan, aurreko ekitaldiko, hau da, 2005eko datuak adierazi ditu Gobernu Batzordeak, dagozkion konparazioak egiteko. Gure iritzia 2006 ekitaldiko kontuetara mugatzen da. 2006ko martxoaren 15ean, 2005 ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza-txostena egin genuen, eta, bertan, kontu horien aldeko iritzia eman genuen.

Gure iritziz, arlo esanguratsu guztietan, erantsirik doazen 2006ko urtealdiko kontuetan zuzen adierazita daude bai Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen ondarearen eta finantza-egoeraren 2006ko abenduaren 31ko irudia, bai eta egun horretara arteko urtealdian eginiko operazioen emaitzen eta lorturiko eta aplikaturiko baliabideen irudia ere, eta datu horiek denak interpretatzeko eta ondo ulertzeko behar bezain beste informazio ere badakarte, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan aplikatu beharreko kontularitzako printzipio eta arauen haritik (txosten erantsiaren 4. puntua), eta horiek bat datoz aurreko ekitaldian erabilitako printzipio eta arauekin.

Txostenarekin batera aurkezten den 2006ko Kudeaketa Txostenak, enpresaren egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz gobernu batzordearen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez da urteko kontuetako bat. Kudeaketa txosten horretan jasota dagoen kontularitzako informazioa eta 2006. urteko kontuetan jasota dagoen informazioa bat datozela egiaztatu dugu. Ikuskatzaileak garen aldetik, gure lana kudeaketatxostena neurri horretan egiaztatzea da, besterik ez, eta erakundeko kontularitzako erregistroetatik lortutakoaz bestelako informaziorik ez dugu guk aztertzen".

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.
(Jatorrizkoa espainieraz, M^a Victoria Mendia Lasak sinatua)

2007ko martxoaren 20a
Bazkide kontu-ikuskatzailea



ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

EGOERA-BALANTZEAK, 2006KO ETA 2005EKO ABENDUAREN 31N (Mila-eurotan adieraziak)

AKTIBOA	2006	2005	PASIBOA	2006	2005
IBILGETUA	656	751	SOZietate-ondarea	2.614	614
Ezarpen-gastuak	6	8	Mutuako funtsa	30	30
Ibilgetu ez-materialak	523	598	Ekitaldiko soberakina	2.584	584
Erabilera-eskubideak	476	476	HORNIDURA TEKNIKOAK	63.664	29.482
Aplikazio informatikoak	196	196	Prestazioetarako hornidura teknikoak	63.664	29.482
Metatutako amortizazioa	(149)	(74)	ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	587	813
Ibilgetu materialak	127	145	Jasotako dirulaguntzak	587	813
Garraio-elementuak	15	15	ZORRAK	181	569
Altzariak eta instalazioak	110	94	Zerga-alorreko, sozietateko eta bestelako zorrak	19	15
Ekipo informatikoak eta datuak prozesatzekoak	65	64	Zenbait hartzekodun	37	87
Metatutako amortizazioa (kentzekoa)	(63)	(28)	Baloreen erosketagatiko hartzekodunak	125	467
FINANTZA-INBERTSIOAK	60.883	17.026			
Akzioak eta bestelako partaidetza-tituluak	17.240	7.219			
Egin beharreko partaidetza-ordainketak	(2.300)	-			
Errenta finkoko tituluak	46.298	9.912			
Hornidurak (kentzekoak)	(355)	(105)			
KREDITUAK	652	477			
Zenbait zordun	598	459			
Zerga-alorreko, sozietateko eta bestelako kredituak	54	18			
URTEALDI AMAIERAKO DOIKUNTZAK	645	129			
ESKUDIRUA	4.210	13.095			
Banketxeak eta kreditu-erakundeak	2.610	1.895			
Finantza-aktibo likidoak	1.600	11.200			
	67.046	31.478		67.046	31.478

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUAK, 2006KO ETA 2005EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIEI DAGOZKIENAK (Mila-eurotan adieraziak)

<u>GASTUAK</u>	<u>2006</u>	<u>2005</u>	<u>DIRU-SARRERAK</u>	<u>2006</u>	<u>2005</u>
Ekitaldian sortutako prestazioak			Ekitaldiko kuotak		
Prestazioak eta erreskateak	311	109	Bazkide-kuotak	33.857	29.581
	<u>311</u>	<u>109</u>	Beste BGAE batzuetako intsuldaketak	52	10
				<u>33.909</u>	<u>29.591</u>
Ekitaldi amaierako hornidura teknikoak			Aurreko ekitaldiko hornidura teknikoak		
Prestazioetarako hornidura teknikoak	63.664	29.482	Prestazioetarako hornidura teknikoak	29.482	-
			Aurreko ekitaldiko hornidura teknikoen emaitzetarako aplikazioak	584	-
				<u>30.066</u>	<u>-</u>
Administrazio-gastuak			Inbertsioetako diru-sarrerak		
Soldatak eta ordainsariak	211	173	Finantza-inbertsioetako diru-sarrerak	1.960	507
Sozietatearen kargak	52	43	Finantza-eragiketen etekinak	1.733	443
BGAE-tara egindako ekarpenak	1	-		<u>3.693</u>	<u>950</u>
Amortizazioetarako ekitaldian egindako zuzkidurak	112	103			
Bestelako administrazio-gastuak	298	250	Ezohiko emaitza positiboak		
	<u>674</u>	<u>569</u>	Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital-dirulaguntzak	226	513
Inbertsio-gastuak				<u>226</u>	<u>513</u>
Zenbait finantza-gastu	1	7			
Horniduretarako ekitaldi-zuzkidura	250	105			
Finantza-eragiketen galerak	410	198			
	<u>661</u>	<u>310</u>			
Ekitaldiko superabita	<u>2.584</u>	<u>584</u>			
ZORRA, GUZTIRA	<u>67.894</u>	<u>31.054</u>	HARTZEKOA, GUZTIRA	<u>67.894</u>	<u>31.054</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2006KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN MEMORIA (Mila-eurotan adierazia)

1. Sozietatearen izaera eta xedea

ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea (hemendik aurrera, Erakundea) 2004ko uztailaren 27an eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren eskutik. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak, 2004ko uztailaren 30ean, haren Erakundearen eraketa, estatutuak, prestazio-erregelamendua eta txosten ekonomikoa onartu zituen. Erakundeak 260-A zenbakia du Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Erregistro Ofizialean.

Hau da erakundearen helbide soziala: San Antonio kalea, 2, Vitoria – Gasteiz (5. oharra).

Erakundeak, eratu zenetik, bete beharrekoak ditu arau hauek: 25/1983 Legea, urriaren 27koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa, eta 87/1984 Dekretua, otsailaren 20koa, aurrez adierazitako legearen erregelamendua onartzen duena.

Estatutuetan adierazten denez, haren xede soziala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalarentzat lan egiten duten langileen prestazio publikoak osatzea, baldin eta gertakari hauek gertatzen badira: erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza edo epe luzeko langabezia. Euskal Autonomia Erkidegoa da Erakundearen jarduera-eremua.

Erakundearen bazkide babesleak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko instituzioak, baldin eta aurretiaz atxikitze-erabakia izenpetzen badute eta, ondoren, Erakundeko Gobernu Batzordeak atxikitze hori onartzen badu. Bazkide babesle gisa sartzeko eskaera egin dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontsulta-emaileko instituzioek.

Pertsona fisikoak izan daitezke bazkide numerario, baldin eta bi urtez bazkide izanda, bazkide babesleren batentzat lan egiten badute karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa, lan-kontratuko langile gisa, behin-behineko langile gisa edo goi-karguren bat betetzen badute.

Oro har, zerbitzuak emateari uzten bazaio edo horiek eteten badira, eta, horren ondorioz, bazkideek ez badituzte diruzko ordainak jasotzen, bazkide babesleek eta bazkide numerarioek ekarpenak egiteari utziko diete. Etendura-egoeran dauden bazkideak izango dira azken horiek.

Onuradunak izango dira Estatutuetan araututako prestazioren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonak, Erakundeko bazkide numerarioak izan diren ala ez aintzat hartu gabe. Prestazio-erregelamenduak araututako prestazioak ordaintzea dakarren gertakaria gertatzean eta Erakundeko Gobernu Batzordeak hala onartzean aitortuko da onuradun-izaera.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Estatutuetan arautzen denez, ekarpen zehaztuko eta prestazio zehaztugabeko modalitatea dagokio Erakundeari, eta, ondorioz, ez du prestazioekin lotutako arriskuen estaldurarik bere gain hartzen.

Bazkide babesleek Erakundeari egindako ekarpenak bazkideei egotziko zaizkie haien ordainsari finko eta aldizkakoan proportzioan; hala ere, azken horiek borondatezko ekarpenak egin ditzakete.

Finantza-kapitalizazio indibidualen finantza- eta jardun-sistema hautatu du Erakundeak; horrenbestez, kapitalizazio-prozesuaren ondorioz, prestazio hauek kuantifikatuko dira araututako gertakariaren bat gertatuz gero: bazkide bakoitzaren ekarpenak, doan tituluz gertatutako ondare-handitzeak eta horien gain egindako inbertsioetatik lortutako errentak; betiere, horiei guztiei egozgarri zaizkien gastuak kenduta.

2. Prestazio-estaldura

Gertakari edo kontingentzia hauek estaltzen ditu Erakundeak:

- i) Bazkide numerarioen erretiroa edo horri parekatutako egoera. Ezinezkoa balitz erretiro-egoerara igarotzea, 60 urte beteta izan beharko dira prestazioa jasotzeko, baldin eta bazkide numerarioak utzi egin badio Gizarte Segurantzaren edo Estatuko Klase Pasiboetan alta-egoeran izatea dakarren jardura bat egiteari.
- ii) Bazkide numerarioak baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo ezintasun iraunkor osoa izatea.
- iii) Bazkide numerarioaren heriotza. Alarguntasun-prestazioa eta zurruntasun-prestazioa jasotzeko eskubidea sorraraz dezake gertakari horrek, baita beste zenbait eskubide ere, beste jaraunsleen batzuen alde.
- iv) Bazkide numerarioa langabezian denbora luzez izatea.

Erakundeko onuradunen aldeko eskubide ekonomikoak aitortzen dituzte prestazioek, hark estalitako gertakari edo kontingentziaren bat gertatzen bada. Bazkideek kapitalizatutako aurrezkiarekin bat etorriko dira prestazioen eskubide ekonomikoak.

Onuradunek modu hauetakoren batean jasoko dituzte prestazioak, kontingentzia gauzatzen den unetik aurrera:

- Kapital moduan jasoz gero, ordainketa bakarra egingo da, bazkideak gertakariaren eragineko datan finkatuta zituen eskubideen zenbatekoa.
- Errenta moduan jasoz gero, errenta hori aldi baterakoa edo bizi artekoa izan daiteke. Errenta moduan jasotako prestazioak, onuradunek hala nahi izanez gero, finantza-errenta moduan eman daitezke, inolako bermerik edo aktuario-errentarik gabe. Azken kasu horretan, aktuario-errentak kobratuko direla bermatu beharko du Erakundeak, bai primaren kostua bazkideari jasanaraziz, bai aseguru-etxe batekin poliza bat harpidetuz, aktuario-errentaren ordainketa aseguratzeko.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

- Prestazioak konbinatuta; hau da, errenta-modalitatearen bat eta kapital bakarrez kobratzeko aukerak konbinatuz.

Aukera bakarra izango da eskubide ekonomikoak beste enplegu-erakunde batera eramateko, baldin eta langilea haren bazkide bada: langileak behin betiko uztea bazkide babesleei zerbitzuak emateari eta bazkide babesleek ekarpenik ez egin izana bi urteko epean. Egoera hauetakoren bat ematen bada, ez da beharrezkoa izango bi urteko epe hori igarotzea:

- Lan-harreman finkoa amaitzea.
- Beste Herri Administrazio batera joatea.
- Bazkide babeslearen baja.

3. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Benetako egoera

Kontu-erregistroetako datuen arabera egin dira Erakundearen urteko kontuak, eta indarreko legediak araututako moduan aurkezten dira —eta, berariaz, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeentzat xedatutako kontu-egokitzapeneko arauak betez—. Agiri horren helburua Erakundearen ondarearen eta finantza-egoeraren benetako egoeraren berri ematea da.

Merkataritza Kodeko 42. artikulua araututakoari erreparatuta, Erakundeak ez du, 2006ko abenduaren 31n, urteko kontu finkatuak egiteko obligaziorik.

Bazkideen Batzar Orokorrak 2006 ekitaldiko kontuak oraindik onartu ez baditu ere, Erakundeak Gobernu Batzordeak uste du haiek aldaketarik gabe onartuko direla.

Urteko kontuetako kopuruak mila-eurotan adierazita daude.

b) Kontu-sailen bilketa

Balantzea eta irabazien eta galeren kontua ulergarriak izan daitezen, agiri-tako datuak bilduta aurkezten dira, eta memoriako oharretan egiten da horien azterketa.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

4. Erabilitako kontularitza-printzipioak eta balorazio-arauak

Kontularitza Plan Orokorrean araututako kontularitza-printzipioak eta balorazio- eta sailkapen-arauak betez egin dira urteko kontuak. Arau eta printzipio horiek Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak 1988ko abenduaren 12ko zirkularrak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeentzat xedatutakoari egokitu dira. Halaber, azken erakunde horrek eman eta aplikagarriak diren beste zirkular batzuk ere betetzen dituzte urteko kontuek. Hauek dira printzipio nagusiak:

a) Zuhurtasun-printzipioa

Ekitaldia itxi artean lortutako etekinak soilik kontabilizatu dira, data horretarako gauzatu gabe zeudenak at utziz. Galera guztiak (aurreikus daitezkeenak barne) Ohar honetan adierazitako balorazio arauen arabera zehazten dira, eta horien berri izan bezain laster jasotzen dira erregistrotan.

b) Sortzapen-printzipioa

Diru-sarrerak eta gastuak horien sortzapenaren arabera kontabilizatzen dira (lehenak eskuratzeko eskubidea eta bigarrenak ordaintzeko obligazioa sortzarekin batera), horiek noiz kobratzen edo ordaintzen diren kontuan hartu gabe.

c) Ezarpen-gastuak

Eraketa-gastuak, jardueraren lehen ezarpeneko gastuak eta kapitala gehitzeko gastuak dira, eta 5 urteko epean amortizatzen dira, modu linealean. Haien kapitalizatzeko bide eman duten zirkunstantziak aldatuz gero, dagokion urteko emaitzetan jasoko da amortizatzeko geratzen den zatia.

d) Ibilgetu ez-materiala

Eskurapen-prezioan baloratuta daude aplikazio informatikoak, amortizazioa kenduta. Amortizazio hori metodo lineala erabilia kalkulatu da, 3 urteko balio-bizitza oinarritzat hartuta.

Erakundearen sozietate-helbideko (ikus 1. oharra) lokalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak Erakundeari doan lagatakoak dira (5. oharra). Atxikitako ondasunen katastro-balioaz baloratu dira Erakundearen aldeko erabilera-eskubide horiek, eta, ibilgetu ez-materialaren atalean jasotzeaz gain, zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarreraren atalean erregistratu dira, dirulaguntza gisa. Lagapen-epea mugagabea denez, Erakundeak 50 urteko epe bat ezarri du haien amortizazio lineala egiteko.

e) Ibilgetu materiala

Eskuratzeko-prezioan baloratzen dira ibilgetu materialeko ondasunak, eta Ogasun Publikoak zuzenean itzultzen ez dituen zeharkako zergak jasotzen dira bertan.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Metodo lineala erabiliz kalkulatzen da amortizazioa, aktiboentzat aurreikusitako balio-bizitzaren arabera, eta horien funtzionamenduaren eta erabileraren ondoriozko balio-galerari erreparatuta.

Balio-bizitza hauek aurreikusi dira ibilgetu materialeko elementuen balio-galera kalkulatzeko:

	Balio- bizitzako urteak
Garraio-elementuak	5
Altzariak eta instalazioak	10
Ekipo informatikoak eta datuak prozesatzekoak	3

f) Finantza-inbertsioak

Akzioak eta bestelako kotizazio-partaidetzak eskuratze-kostuaren arabera baloratuta daude (gastuak barne), eta, merkatu-balioa eroste-prezioa baino txikiagoa izan bada, ekitaldiko emaitzen konturako hornidura egin da, finantza-inbertsio horien balio-galera konpentsatzeko.

Errenta finko kotizatuko eta kotizatu gabeko tituluetan egindako inbertsioak haien eskuratze-prezioan baloratzen dira, edo errenboltso-baliora, azken hau txikiagoa bada. Eskuratze-balioak errenboltso-balioarekiko duen aldea urtero amortizatzen da, balorearen hondar-bizitzaren arabera eta haren barne-errentagarritasuneko tasari erreparatuta.

Egoera-balantzeko "Finantza-inbertsioak – Errenta finkoko tituluak" epigrafean jasotako igorpen egituratuak baloratzeko, inbertitutako kapitala berreskuratuko dela ez badago bermatuta finantza-eragiketa mugaegunera iristean, akzioen eta beste partaidetza batzuen balorazioa egiteko irizpideei jarraitzen zaie. Ildo horretatik, kontrako aldeak egindako balorazioaren arabera lortzen da merkatu-balioa.

Egoera-balantzeko aktiboko Urtealdi amaierako doikuntzen epigrafean jasotzen dira errenta finkoko inbertsioei, jaulkipenei eta egituratutako gordailuei dagozkien interes hartzekodunak eta kobratzeke daudenak.

g) Finantza-aktibo likidoak

Birsalmentako hitzarmenez eta aldi baterako eskuratutako finantza-aktiboak eskurapen-preziora baloratzen dira, azken hau errenboltso- edo gauzatze-balioetik behera dagoelarik.

Sortutako interesak eta kobratzeke daudenak, finantza-metodoen arabera kalkulatuak, Egoera-balantzeko aktiboko Urtealdi amaierako doikuntzen epigrafean jasotzen dira.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEA

h) Diru-sarrerak eta gastuak jasotzea

Diru-sarrerak eta gastuak kontuetan erregistratzeko, horiek noiz sortu diren aintzat hartzen da, eta ez noiz kobratzen edo ordaintzen diren.

Berariazko etekina duten errenta finkoko tituluen interesak egunero jasotzen dira, aktiboko Urtealdi amaierako doikuntzen epigrafean, kupoen kobrantza-datara bitartean, horiek Finantza-inbertsioetako diru-sarreraren kontuan ordainduz.

Ezin bada interesak ordaintzen diren egunera arte jakin zer interes-tasa aplikatuko zaion interesak sortzeko epe bakoitzari, hura kalkulatzeko epera iritsi bitartean erreferentzia-indizeak izandako bilakaeraren arabera doitzen dira sortutako etekinak.

i) Prestazioetarako hornidura teknikoak

Erakundearen aurreikuspen-jardueratik eratorritako obligazioei aurre egiteko eratzten diren hornidurak dira.

Hornidura horien zenbatekoa, ekitaldi guztietan, bat dator bazkide numerarioen kuoten eta bazkide babesleek egindako ekarpenen zenbateko osoarekin. Halaber, aurreko ekitaldiko emaitzen aplikazioa erasten zaio zenbateko horri (emaitzen banaketa onartu ondoren). Estatutuek xedatutako prestazioei aurre egiteko zuzkitzen dira hornidura horiek. Hornidura horien aldaketak galeren eta irabazien kontuan jasotzen dira; hau da, ekitaldi amaierako hornidura teknikoak zorren atalean jasotzen dira, eta hartzekoen atalean aurreko ekitaldiko hornidura teknikoak.

j) Bazkide-kuotak eta sortutako prestazioak

Agiri honi erantsitako galeren eta irabazien kontuko Ekitaldiko kuotak – Bazkide kuotak epigrafean jasotzen dira Erakundeko bazkide numerarioek eta bazkide babesleek ekitaldi bakoitzean egindako ekarpenak.

Hornidura teknikoen epigrafeko saldoari erreparatzen zaio bazkide numerarioen eskubideei dagozkien ekarpenak eta prestazioak baloratzeko.

Ekitaldian sortutako prestazioen kapituluan jasotzen dira ordaindutako zenbatekoak, agiri honi erantsitako galeren eta irabazien kontuan.

k) Sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipenak

Agiri honi erantsitako egoera-balantzearen aktiboko Kredituak - Kreditu fiskalak, sozialak eta bestelakoak epigrafean jasotzen dira Sozietateen gaineko Zergaren konturako atxikipenak, kapital higikorreko etekinei dagozkienak; izan ere, EAEko BGAEen erregimen fiskalari buruzko foru-arauek xedatzen dutenari jarraituz, Erakundeak horiek berreskuratzeko eskubidea du.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

l) Eragiketak deribatuekin

Merkatu antolatuetan kotizatzen duten produktu deribatu jakinak kontratatzen ditu Erakundeak, inbertsio gisa.

Galeren eta irabazien kontuan jasotzen dira deribatuen eskuratze-prezio eta merkatuko baloreen artean gertatzen diren alde positiboak edo negatiboak; horrela, galerak Finantza-eragiketen galerak epigrafean jasotzen dira, eta irabaziak, berriz, Finantza-eragiketen irabaziak epigrafean.

m) Atzerriko moneta

Balantzean atzerriko monetan adierazia jasotzen diren aktiboko eta pasiboko saldoak haiek, egun horretan, dibisen merkatuan duten truke-balio ofizialaren balioaz jasotzen dira, edo, hala ezin bada, merkatuak data horren aurreko azken lanegunean zuen balioaz. Finantza-inbertsioak dibisetan kalkulatzearen ondoriozko balio-aldeak zorroko plusbalioztat edo balio txikiagoztat jotzen dira. Ildo horretatik, balio txikiagoak egoera-balantzeko "Hornidurak" epigrafean jasotzen dira. Altxortegiko aldeak, positiboak eta negatiboak, ekitaldiko emaitzetan ordaindu edo zordunduko dira, horien izaerari jarraituz.

n) Jasotako dirulaguntzak

Erakundearen jardueri ekiteko jaso diren dirulaguntzak (12. oharra) "zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak" epigrafean erregistratu dira, haiek ofizialki eman direnean. Horrela, sarrera horiek 3 urteko epean jasotzen dira ekitaldiko emaitzetan, ustiapen-gastuek ondarearekiko duten proportzioaren arabera (biak ere hiru urte horietako urte bakoitzean zenbatetsiak).

Erakundearen jardueretarako lokalen erabiltzeko lagapenari dagokionez (5. oharra), dirulaguntza gisa erregistratutako zenbatekoa diru-sarreraren atalean jasotzen da, indarrean dauden erabilera-eskubideen amortizazioaren proportzio berean.

o) Ingurumena

Ingurumena babesteko legedia betetzen duelakoan dago Erakundea. Bestalde, Erakundearen jarduerari erreparatuta, ez da gaiarekin lotutako berriazko hornidurarik egin, ez baitago urteko kontu hauetan eragina izan dezakeen arrisku edo gertakari nabarmenik.

**ITZARRI,
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA**

5. Ibilgetu ez-materialak

Hauek izan dira ibilgetu ez-materialen mugimenduak 2006an:

	Mila-euro		
	Kostua	Amortizazioa	Kontularit zako balio garbia
Aplikazio informatikoak:			
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	196	(65)	131
Sarrerak	-	(65)	(65)
Saldoa 2006ko abenduaren 31n	196	(130)	66
Erabilera-eskubideak:			
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	476	(9)	467
Sarrerak	-	(10)	(10)
Saldoa 2006ko abenduaren 31n	476	(19)	457
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	672	(74)	598
Saldoa 2006ko abenduaren 31n	672	(149)	523

Erabilera-eskubideak epigrafean sartzen dira erakundearen sozietate-helbideko lokalak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak Erakundeari doan lagatakoak, Jaurlaritzako Kontseiluak 2005eko abenduaren 11n hartutako erabakiaren bidez. Ogasun eta Herri Administrazioiko Sailak egin zuen erabaki hori hartzeko proposamena. Erakundeak Administrazioaren esku utzi beharko ditu ondasun horiek Ogasun eta Herri Administrazioiko Sailak hala eskatzen badio, bai interes publikoko arrazoientatik, bai Erakundeak ez dituelako bete bere gain hartutako obligazioak (ondasunak lagatako xederako erabiltzea eta haiek behar bezala zaintzea).

**ITZARRI,
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA**

6. Ibilgetu materialak

Hauek izan dira ibilgetu materialeko kontuen mugimenduak 2006an:

	Mila-euro		
	SALDOA, 05-12-31n	Sarrerak	SALDOA, 06-12-31n
<u>Kostua</u>			
Garraio-elementuak	15	-	15
Altzariak eta instalazioak	94	16	110
Ekipo informatikoak	64	1	65
	<u>173</u>	<u>17</u>	<u>190</u>
<u>Amortizazioa</u>			
Garraio-elementuak	(3)	(3)	(6)
Altzariak eta instalazioak	(4)	(11)	(15)
Ekipo informatikoak	(21)	(21)	(42)
	<u>(28)</u>	<u>(35)</u>	<u>(63)</u>
<u>Kontularitzako balio garbia</u>	<u>145</u>		<u>127</u>

7. Finantza-inbertsioak

Hauek izan dira finantza-inbertsioen mugimenduak 2006an:

	Mila-euro			
	SALDOA, 05- 12-31n	Sarrerak	Erretiroak eta amortizazioak	SALDOA, 06- 12-31n
Akzioak eta bestelako partaidetza- tituluak	7.219	35.381	(25.360)	17.240
Egin beharreko partaidetza- ordainketak	-	(2.300)	-	(2.300)
Errenta finkoko tituluak:				
- Jaulkipen egituratuak	8.922	30.626	(6.980)	32.568
- Errenta finkoko bestelako tituluak	990	12.837	(97)	13.730
Hornidurak (kentzekoak):				
Akzioak eta bestelako partaidetza- tituluak	(105)	(696)	446	(355)
	<u>17.026</u>	<u>75.848</u>	<u>(31.991)</u>	<u>60.883</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENeko ERAKUNDEA

2006ko abenduaren 31n, 2.300 mila-euro zeuden ordaintzeko Arcano Capital I F.C.R. funtsez funtsarekiko partaidetzan hitzartutako 2.500 mila-euroko inbertsioetik, eta Akzioak eta bestelako partaidetzak epigrafean jasotzen da.

2006ko abenduaren 31n, finantza-inbertsioak epigrafean jasotzen dira dibiseta eskuratutako tituluak, eurotan balio hau dutenak:

	<u>Mila-euro</u>
USA dolarrak	1.699
Japoniako yenak	747
Libra esterlinak	358
Suediako koroak	248
	<u>3.052</u>

Hauk izan dira errenta finkoko zorroaren mugaegun-balioak 2006ko abenduaren 31n.

	<u>Mila-euro (Liburuetako balioa)</u>
2007	3.000
2009	3.788
2010	1.990
2011 eta hurrengoak	37.021
Jaulkipen iraunkorrak	499
	<u>46.298</u>

“Errenta finkoko tituluak – Jaulkipen egituratuak” kapituluaren baitan, 26.588 mila-euroko eskuratze-kostua duten jaulkipenak jasotzen dira besteak beste, eta horien jaulkitzaileak aukera du haiek kontratuaren mugaeguna baino lehen ezeztatzeko. Halaber, gerta daiteke haien azken mugaeguna kontratukoa baino lehenagokoa izatea, jaulkipenen errentagarritasunaren bilakaerari erreparatuta.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENeko ERAKUNDEA

“Errenta finkoko tituluak – Jaulkipen egituratuak” epigrafeak, halaber, beste finantza-erakunde batzuen jaulkipenak ere jasotzen ditu, baina ez dago bermatuta horietan egindako hasierako inbertsioa erabat berreskuratuko denik, azpiko zenbait aktiboren bilakaerak erabakiko baitu inbertsio hori osorik berreskuratuko den ala ez. Hauek izan dira jaulkipen horien ezaugarriak 2006 ekitaldiaren itxieran:

Jaulkitzailea	Eskuratzeko- kostua (eurotan)	Merkatu-balioa ekitaldi-itxieran (1)	Azpiko aktiboa	Azken mugaeguna
Banesto	1.000.000	1.090.200	Telefonica akz.	09/03/03
Banco Sabadell	500.000	557.450	ABN Amro akz. Banco Santander akz.	09/07/27
Morgan Stanley	288.060	(2) 344.370	France Telecom akz.	09/04/06
Société Generale	500.000	528.750	DJ Eurostoxx50 Index	11/05/26
Kutxa	1.000.000	1.046.700	DJ Eurostoxx50 Index	10/09/21
UBS	1.000.000	1.004.380	DJ Eurostoxx50 Index	09/05/26
	4.288.060	4.571.850		

- (1) Jaulkitzailearen Erakunde Agenteak emandako balorazioak.
 (2) Jaulkipenak 07/01/17an zuen kotizazioa.

2006ko abenduaren 31n, aurrez azaldutakoetatik kanpoko errenta finkoko finantza-bitartekoek %1,50 eta %8,25 bitarteko urteko interes nominala ematen diote Erakundeari.

Agiri honi erantsitako egoera-balantzeko aktiboko “Urtealdi amaierako doikuntzak” epigrafean jasotzen dira, 644 mila-euroko zenbatekoan, 2006ko abenduaren 31n kobratzeko zeuden etekin sortzapetuak, finantza-inbertsioei zegozkienak.

2006ko abenduaren 31n, Erakundearen errenta finkoko tituluak Bilbao Bizkaia Kutxan gordailatuta daude. Horren salbuespen dira 6.000 mila-euroko zenbatekoa duten tituluak, beste erakunde batzuetan gordailatuta daudenak.

2006ko abenduaren 31n, akzioei eta bestelako partaidetzei dagozkien plusbalioak ditu Erakundeak, 716 mila-euroko zenbatekoan. Data horretan, zorro honetako errenta finkoko balore guztiak antolatutako merkatuetan kotizatzen dute, Arcano Capital I, FCR funtsen funtseko partaidetzak izan ezik. Azken funts horretan 200 mila-euroko zenbatekoa ordaindu da.

2006ko abenduaren 31n, Erakundeak ez du haren funtsen %15a inbertitua Estatuak, Autonomia Erkidegoek, Foru edo Probintzia Diputazioek edo Udal Korporazioek jaulkitako edo bermatutako funts publikoetan, otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuko 68. artikulua xedatuaren arabera.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

8. Kredituak

2006ko abenduaren 31n, "Hainbat zordun" epigrafeak adierazten du baloreekin lotutako eragiketetan likidatzeko dagoen saldoa 422 mila-eurokoa dela.

Halaber, epigrafe horretan jasotzen dira, 176 mila-euroko zenbatekoan, kontratatutako etorkizuneko finantza-tresnen bermerako gordailatu diren funtsak (14. oharra).

9. Eskudirua

"Banketxeak eta kreditu-erakundeak" epigrafean jasotzen da Erakundeak 2006ko abenduaren 31n zer saldo duen Euriborrak 1. hilean duen zenbatekoaren %90eko interes-tasa ematen duten kontu korranteetan.

"Finantza-aktibo likidoak" epigrafeak adierazten du zein izan den, 2006ko abenduaren 31n, 2007ko urtarrilean mugaegunera iristen diren aldi baterako moneta-finantzen eskurapeneko kostua. Finantza-tresna horiek %3,25eko urteko interes-tasa sortzen dute.

Egoera-balantzeko honetako kontzeptuei dagozkien interes sortzapetuak, 2006ko abenduaren 31n kobratzeko zeudenak, aktiboaren "Urtealdi amaierako doikuntzak" epigrafean jasotzen dira, 1 mila-euroko zenbateko metatuan.

10. Sozietate-ondarea

Hau izan da sozietate-ondarearen mugimendua 2006an:

	Mila-euro		
	Mutuako funtsa	Ekitaldiko soberakina	Guztira
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	30	584	614
Intsuldaketak hornidura teknikoetara	-	(584)	(584)
2006 ekitaldiko soberakina	-	2.584	2.584
Saldoa 2006ko abenduaren 31n	<u>30</u>	<u>2.584</u>	<u>2.614</u>

"Mutuako funtsaren" saldoak jasotzen du Eusko Jaurlaritzak, bazkide babesle den aldetik, Erakundea eratzeko egin duen ekarpenaren zenbatekoa. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen araudiak araututako gutxieneko zenbatekoa estaltzeko egin zuen ekarpen hori.

**ITZARRI,
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA**

11. Hornidura teknikoak

Hauek izan dira atal honetako saldoen datuak 2006an:

	Mila-euro
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	29.482
Bazkide babesleen ekarpenak	33.028
Bazkide numerarioen ekarpenak	829
Beste BGAE batzuetako intsuldaketak	52
Ekitaldian ordaindutako prestazioak eta erreskateak	(311)
2005 ekitaldiko soberakina, hornidura teknikoetara intsuldatua	584
Saldoa 2006ko abenduaren 31n	<u>63.664</u>

Prestazioetarako hornidura teknikoen saldoak eta 2006 ekitaldiko emaitza garbiak osatzen dute bazkideek 2006ko abenduaren 31n dituzten eskubide finkatuak.

Hauek dira Erakundeko bazkideen ondareari buruzko datu nagusiak, 2005eko eta 2006ko abenduaren 31n:

	2006	2005 (*)
Partaidetza-kopurua	6.147.956,40	2.936.026,53
Partaidetza bakoitzaren balioa (eurotan)	10,78	10,24
Ekitaldiko urteko errentagarritasuna	%5,23	%3,41
Bazkide numerarioen kopurua	71.986	70.207

(*) 2005 ekitaldiko errentagarritasuna kalkulatzeko, 2005eko apirilaren 18ko balio likidagarriari erreparatu zitzaion, data horretan kalkulatu baitzen lehen aldiz balio hori.

12. Zenbait ekitalditan banatu beharreko sarrerak

Hauek izan dira epigrafe honek 2006an azaldu dituen datuak:

	Mila-euro
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	813
Sarrerak	-
Emaitzetara intsuldatua	(226)
Saldoa 2006ko abenduaren 31n	<u>587</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2006ko abenduaren 31n, "zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak" epigrafean jasotako zenbatekoa Euskal Administrazio Publikoak, bazkide sustatzaile eta babesle den aldetik, 2004ko azaroaren 30ean Erakundeari emandako bi dirulaguntzari dagokie. Dirulaguntzetako bat, 130 mila-eurokoa, Erakundea abian jartzeko eragiketak finantzatzeko eta haren eguneroko funtzionamendua bideratzeko eman zen, eta bestea, 457 mila-eurokoa (5. oharra), lokalen erabilera-eskubideen lagapenari dagokio.

13. Egoera fiskala

Indarreko legediak arautzen duenez, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek zeroko zerga-tasa dute Sozietateen gaineko Zergan; ondorioz, erakunde horiek eskubidea dute jatorrian atxikipen bakarrekoak diren finantza-aktiboen etekinei egindako atxikipenak itzul diezazkieten. Hala ere, bete beharrekoak dituzte Sozietateen gaineko Zergak erregimen orokorreko subjektu pasiboek eskatzen dizkien betebeharrak formalak.

Indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, zergak ezin dira erabat likidatuz joko zerga arloko agintariek aurkeztutako aitortzen ez dituzten arte, edo preskripzioko 4 urteko epea igarotzen den arte. 2006ko abenduaren 31n, zerga-agintaritzak ikuskatu gabeak ditu Erakundeari aplikagarri zaizkion zerga nagusiak, hura eratu zenetik data horretara. Hala ere, Erakundeko administratzaileek uste dute, ikuskapenik eginda ere, ez dela pasibo aipagarririk azalduko.

14. Tresna deribatuekin egindako eragiketak

Erakundeak finantza-etorkizuneko kontratu hauek zituen izenpetuta 2006ko abenduaren 31n:

Mota	Azpiko aktiboa	Mugaeguna	Kontratu-kopurua	Merkatu-balioa (Mila-eurotan)
Salmenta	Eurostoxx-50	2007ko martxoa	50	2.079

Erakundeak agiri honi erantsitako egoera-balantzeko "Hainbat zordun" epigrafean jasota ditu, 2006ko abenduaren 31ko dataz, 176 mila-euroko zenbatekoa duten berme-gordailuak (8. oharra).

15. Bestelako informazioa

Erakundeak ez die ordainsaririk, aurrerakinik edo krediturik eman Gobernu Batzordeko egungo edo lehengo kideei, eta, halaber, ez du bizi-aseguruekin lotutako obligaziorik hartu haiekin.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Erakundeak, 2006an, 14 mila-euro gastatu ditu kanpo-auditoriako zerbitzuetan. Ekitaldi horretan, auditoria-etxeak edo hari lotutako enpresek ez diote bestelako zenbatekorik fakturatu Erakundeari.

16. Finantziazio-etaulak

Ondoren, 2006ko eta 2005eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako finantziazio-etaulak jasotzen dira (mila-eurotan):

<u>APLIKAZIOAK</u>	<u>2006</u>	<u>2005</u>	<u>JATORRIAK</u>	<u>2006</u>	<u>2005</u>
Ondarea:			Eragiketek sortutako baliabideak:		
- Prestazioak eta erreskateak	311	109	- Ekitaldiko soberakina	2.584	584
	<u>311</u>	<u>109</u>	- Gehi (ken) – Horniduren aldaketak		
Ibilgetu eskurapenak:			Inbertsio finantzarioen balio-galerak	250	105
- Ezarpen-gastuak	-	9	- Gehi (ken) – Emaiza garbia		
- Ibilgetu ez-materiala	-	196	Inbertsio finantzarioak besterendu ondoren	(1.483)	(429)
- Ibilgetu materiala	17	173	- (Gehi) - Amortizazioetarako zuzkidurak	112	103
	<u>17</u>	<u>378</u>	- (Ken) – Intsuldatutako dirulaguntzak		
Honako hauen gehikuntza edo murrizketa garbia:				(226)	(513)
- Finantza-inbertsioena	42.624	16.702	emaitzetara intsuldatua		(150)
- Eskudiruarena	(8.885)	13.095		<u>1.237</u>	<u>(150)</u>
- Kredituena	175	477	Ondarea:		
- Urtealdi amaierako doikuntzak	516	129	- Mutua-funtsari egindako ekarpena	-	30
	<u>34.430</u>	<u>30.403</u>	- Bazkide-kuotak	33.857	29.581
			- Beste BGAE batzuetako intsuldaketak	52	10
				<u>33.909</u>	<u>29.621</u>
			Jasotako dirulaguntzak	-	850
			Honako hauen gehikuntza edo murrizketa garbia:		
			- Zorrena	(388)	569
				<u>(388)</u>	<u>569</u>
APLIKAZIOAK, GUZTIRA	<u>34.758</u>	<u>30.890</u>	JATORRIAK, GUZTIRA	<u>34.758</u>	<u>30.890</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2006 EKITALDIKO KUDEAKETA-TXOSTENA

ERAKUNDEAREN EGOERA ETA BILAKAERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzako Kontseiluak 2004ko uztailaren 27an hartutako erabakiaren bidez eratu zen ITZARRI, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea. Erabaki horrek bete egin zuen Mahai Orokorrean, maiatzaren 6ko bileran, gizarte-aurreikuspen osagarriari buruz hartu zen konpromisoa —ordainsarien 2003ko eta 2004ko igoerak negoziatzeko bildu zen Mahaia—.

Jaurlaritzaren erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko erakundeak ITZARRI-BGAEko bazkide babesle bihurtzen dira, eta konpromisoa hartzen dute, urtero ezarritako neurrian, haien soldata-masako ehuneko bat erabiltzea Erakundeari egin beharreko ekarpenak finantzatzeko. 2004rako, %0,5eko ekarpena finkatu zen; 2005erako, %0,5 gehiago, hau da, %1ekoa; eta 2006rako, berriz, %1,50eko ekarpen-ehunekoa finkatu da.

2006ko abenduaren 31n, ekarpenen guztizkoa 33.857 mila-eurokoa izan zen. 2006ko igoera, 2005arekiko, %14,45ekoa izan da.

Jasotako ekarpenetatik, 311 mila-euro erabili dira honako prestazio hauek finantzatzeko: erretirorako, 219 mila-euro; ezintasunerako, 59 mila-euro, eta heriotzarako 33 mila-euro.

2006ko abenduaren 31n, Erakundeak 71.986 bazkide zituen, eta, horietatik, 2.950 etendura-egoeran zeuden.

2006ko abenduaren 31n, finkatutako eskubideen eta ekitaldiko soberakinaren guztizko zenbatekoa 66.248 mila-eurokoa da; horrela, urte horretan 2.584 mila euroko irabazi garbia lortu da, eta Erakundearen inbertsio-zorroak 716 mila-euroko plusbalio ezkutuak ditu. Ondareak 6.147.956,404016 kontu-unitate ditu, 10,775618 eurokoak.

2006. urtea oso ona izan da finantza-merkatuetako burtsentzat, enpresen emaitza onek eta munduko herrialde handien ekonomiaren igoera nabarmenak bultzatuta. Gainera, inflazioa nahiko kontrolatuta dago mundu osoan, Banku Zentralek interes-tasak igotzen joan baitira pixkanaka. Bonoek bestelako aktiboen aldean ematen duten errentagarritasun txikiak ere errenta aldakorren alde egin du.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEA

Aipatzekoa da Errusiak, Mexikok eta Indiak izan duten gorakada. Mendebaldeko herrialdeei dagokienez, Ibex-35 indizea nabarmendu behar da, %31,79 igo baita ekitaldian, batik bat, zerbitzuen eta energia-horniduren sektoreetan izandako jarduera handiari esker. Eurostoxx 50 indizea, Euroguneko erreferentzia nagusia, %15,12 igo zen. Halaber, AEBko S&P 500 indizea %13,62 igo zen, eta Japoniako Nikkei indizea izan zen, munduko indize adierazgarrien artean, gutxien igo zena, %6,92 igo baitzen.

Sektoreei erreparatuta, altzairuaren, higiezinaren eta energia-horniduren sektoreek irabazi handiak izan zituzten, eta ez ziren hainbeste nabarmendu farmaziako eta petrolioko sektoreak. Azken horrek bereziki pairatu zuen urte amaieran petrolio gordinaren prezioak izan zuen jaitsiera handia.

Errenta finkoko merkatuetan, bonoen prezia asko jaitsi zen, bai AEBn, bai Eurogunean, eta, ondorioz, errentagarritasuna igo egin zen, batik bat kurbako tarte motzengatik. Hazkunde ekonomiko handia izan zen merkatuen jokabide horren arrazoi nagusia, baina hazkunde horrek inflazioa igo zitekeela iragartzen zuen. Inflazioa igotzeko arriskuari aurre egiteko, Fed eta BEC erakundeek igo egin zituzten erreferentziako interes-tasak (AEBn, %4,25etik %5,25era, eta Europan, berriz, %2,25etik %3,50era). 10 urterako bonoaren errentagarritasuna, AEBn, %4,39tik %4,70era igo zen urte horretan, eta Alemaniako Bund bonoarena, Europan erreferentziazkoa, %3,31tik %3,95era.

Dibisa-merkatuari dagokionez, dolarrak balio-galera handia izan zuen euroarekiko; izan ere, urte hasieran, kanbia 1,18 \$/€ zen, eta urte amaiera, berriz, 1,32 \$/€. Horren arrazoiak izan zen AEB ekonomia ezagututako inflexio-puntua, bai hazkundera dagokionez, bai interes-tasei dagokienez.

Petrolioak gorabehera handiak ezagutu zituen 2006an: abuztu amaiera bitartean, tentsio geopolitikoak medio, petrolio-upelaren prezioak nabarmen egin zuen gora, urte hasieran 62 dolar balio baitzuten, eta abuztu amaieran, berriz, 80 dolar. Abuztu amaieratik aurrera, zenbait arrazoi medio (gatazkek indarra galdu zuten, hazkunde ekonomiko neurritsu baten aurreikuspenak petrolio-eskaerak behera egingo zuela pentsarazi zuen, eta neguan tenperaturak nahiko epelak izan ziren) petrolio-upelaren prezioa 55 dollarrera jaitsi zen.

Adierazitako testuinguruan, ITZARRI-BGAEk eutsi egin dio 2005ean hasitako inbertsio-politikari, eta zorra dibertsifikatzen saiatu da, errentagarritasun politak lortu nahian, arrisku eramangarriak hartuta. Urtearen hasieran, %30 ingurura igo zen errenta aldakorreko balioen zenbatekoa (hori da Erakundearen inbertsio-politikak uzten duen gehieneko portzentajea), eta, gerora, batik bat azken hiru hilabeteetan, bide kontserbadoreagoetatik jo zen, metatutako irabaziei eusteko.

Errenta finkoko inbertsioak dibertsifikatu egin dira, bai errentagarritasun politiko egituretan inbertituz, bai arrisku/errentagarritasun profil egokia zuten konpainietako bonoetan inbertituz.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEA

2006 ekitaldia sendotzeko urtea izan da ITZARRI-BGAErentzat, hura eratu ondorengo lehen urtea baitzen. Horiek horrela, inbertsioek, Gobernu Batzordeak ezarritako irizpideei jarraiki, segurtasun- eta zuhertasun-printzipioei jarraitu diete, hala egin behar baitu lehen urratsak ematen ari den finantza-erakunde orok.

Hauek izan dira inbertsio-zorroaren inbertsio-ehunekoak, errenta aldakorreen: %6,61 Espainiako Burtsan, %6,34 Eurogunean, eta %0,89 AEBn. ITZARRI-BGAEk zuzenean kudeatu du inbertsio osoa.

Inbertsio-fondoetan egin da inbertsio osoaren %9,75, eta errenta aldakor hertsiko inbertsio-fondoan ehunekoak, zehazki, 1,75ekoa izan da (nazioarteko merkatuetan egin dira inbertsioak, besteak beste, Japonian eta AEBn).

Finantza-inbertsioak, 2006ko abenduaren 31n, 60.883 mila-eurokoak izan ziren, eta hau da horien banaketa: 17.240 mila-euro inbertitu dira akzioetan eta bestelako partaidetzetan, eta, horietatik, 2.300 mila-euro partaidetzetan egiteke ordainketei dagokie; 39.511 mila-euro errenta finkoko titulutan (egiturak) inbertitu dira; 4.288 mila-euro bestelako finantza-aktibotan; 2.499 mila-euro epe motzeko likideziadun aktiboetan eta 355 mila-euro horniduretan.

Hauek izan dira inbertsio-zorroa baloratzeko irizpideak: errenta finkoko aktiboak eskuratze-prezioan; eta errenta aldakorraren eta dibisen kokapenaren hornidura, baldin eta horiek Burtsan duten trukea edo dibisa-merkatuan duten kotizazioa eskuratze-prezioarena baino txikiagoak badira. Inbertsio-fondoetako partaidetzak baloratzeko, errenta aldakorreko irizpide berari jarraitzen zaio, baina alde honekin: haien balio likidagarria jotzen da merkatu-balioztat.

Egitura- eta kudeaketa-gastuak, 2006an, 674 mila-eurokoak izan dira, eta bazkide numerarioek beren gain hartutako gastuen zenbatekoa %1,02koa izan da, ondare osoarekiko. Alabaina, Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza aplikatuta, gastuak 418 mila-eurotan murriztu dira, eta, ondorioz, ondarearekiko gastuen ratioa %0,63ra jaitsi da.

2006 EKITALDIKO ALDERDI NAGUSIAK

Bereziki nabarmentzekoa da ITZARRI-BGAE erakundeak ekitaldi honetan eman duela lehen urratsa erakunde gisa sendotzeko, iazkoa izan baitzen haren ibilbidearen estreinako urtea. Hortaz, etorkizuneko proiektu handi bat sendotu da, baina, batik bat, indartu eginda da bazkide numerarioen konfiantza, lan profesionala egin baita haien erretiroko pentsioen osagarri bat bermatzeko. Hori guztia, gainera, ilusio, bizitasun eta malgutasun handiz egin da.

Nabarmentzekoa da, halaber, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak ITZARRI BGAEren aldeko ebazpena eta epaia eman duela, ELA sindikatuak haren eraketaren eta haserako osajeraren aurka jarritako errekurtsioa erabakiz.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2007RAKO AURREIKUSPENAK ETA BILAKAERA

2007an, bazkide babesle berriak gehituko zaizkigula uste dugu, eta, ondorioz, partaide-kopurua handituko dugula. Gainera, ondareak hazkunde esponenziala izaten jarraituko du, bazkide babesleen ekarpen-ehuneko sendotu eta finkatu egingo baita (ehuneko hori %0,5 igoko da aurreko urtearekiko, eta, ondorioz, %2koa izango da).

Erakundeko inbertsio-zorroaren egitura finantza-merkatuen bilakaeraren arabera aldatuko da ekitaldian zehar (hala ere, errenta aldakorrean eutsi egingo zaio jardueraren bizkar-hezurriari, kapitalizazio handiko balore sendoak hautatuko dira, epe ertain eta luzean errebalorizazio handiko itxaropena eta dibidenduko errentagarritasun handia izango dutenak). Bestela esanda, inbertsio-jarduna eragilea eta malgua izango da, merkatuen bilakaerara moldatuko da, eta gerta daitezkeen egoerei erantzuteko gaitasun handia izango du.

Itzarrik, urtean zehar, errenta finkoaren alde egin beharko du, likideziaren kaltetan. Azken alderdi hori, adierazi dugun moduan, garrantzi handikoa izan da azken bi ekitaldietan, horietan eman baititu Erakundeak lehen urratsak gizarte-aurreikuspenaren eremu konplexuan.

**ITZARRI,
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA**

2006KO URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA AZALTZEA

Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Gobernu Batzordeko kideek Erakunde horren 2006ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuak (egoera-balantzea, galeren eta irabazien kontua eta memoria) eta kudeaketa-txostena azaltzen dituzte, eta, agiri horien edukiarekin ados daudela adierazteko, orri honetan izenpetzen dute. Halaber, Gobernu Batzordeko idazkariak, orri hau izenpetzeaz gain, adierazitako agirien orri guztiak izenpetuko ditu, haiek identifikatzeko.

IZENPETZAILEAK

IZENPEA

Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea
(Presidentea)

José María Endemaño Arostegui jauna

Gloria Quesada Menendez andrea

Javier Garayalde Vélaz jauna

Abel López de Aguilera Quintana jauna

Igone Martínez de Luna Unanue andrea

Mikel Ortega Abad jauna

Pablo Ruiz de Gordejuela Urquijo jauna

Luis Manuel Aguirre Elustondo jauna

Andoni Sanz Sierra jauna

Aizpea Betelu Bazo andrea

Lander Etxebarria jauna

Ohian Ostolaza jauna

Mariano García jauna

José Antonio de Leniz Aspiazu jauna

Eduardo García Elosua jauna
(Idazkaria)
